


# Getxo >MEETING<



## **Networking, hedatu zure sarea eta esploratu aukerak**

Harreman profesional berriak egin eta elikatu. Hor dago gomendioaren gakoa, balizko elkarlanen hazia, berria den zerbaiten hasiera.

Esklusiboki zure negozioarentzako alderdi estrategikoa elikatzera bideratutako Getxo MEETINGeko zenbait ikasgai erakutsiko dizkizugu.

- **Zer dugu komunean?** Gainera, parean duzun pertsonarekin uste baino antzekotasun gehiago izango dituzu, ziurrenik. Ikasi zenuen tokia, lanarekiko duzun ikuspegia, zure publikoa edo gustuko duzun musika mota. **Pertsona guztiekin partekatzen dugu zerbait, hori aurkitu baino ez da egin behar. Horrek enpatia izaten lagunduko dizu, bai eta lanaren pertsonarteko dimentsioa ulertzen ere.** Bai, profesionalak dira, baina partekatzen dituzun balioak zeintzuk diren ulertzean datza bereziki. Izan ere, beste pertsona batekin lanean hasten zarenean, komunikatzeko erraztasuna izatea da gakoa, une onetan nahiz txarretan.
- **Gauza bat da egiten dudana nola azaltzen dudana, eta beste bat beste pertsonak zer jasotzen duen.** Bakoitzak aurrez ezagutzen dituen gaien arabera entzuten du eta finkatzen du informazioa buruan. Hori dela eta, agian interesgarria irudituko zaizu **zuri dagokizuna kontatzen hasi aurretik zure laneko arloarekin lotutako galderak egitea aurrean dituzunei.** Hala, beren markoa zein den ulertu ahal izango duzu eta, horrenbestez, zure hitzak zein kontzeptutan oinarrituko dituen. Hori lagungarria izan daiteke

beste pertsonak agian ulertzen ez dituen ñabardurak, argibideak edo onurak txertatzerako orduan.

- **Izan ekimena harremanak aurrera jarrai dezan:** Arlo pertsonalean konektatu baduzu, uste baduzu pertsona hori interesgarria izan daitekeela zure sarerako (zu gomendatzeko edo egiten duena interesatzen zaizulako zure zerbitzuen zorroan txertatzeko), bidali iezaiozu mezu elektronikoa bat. Txartelez betetako tiradera bat izateak ez du ezertarako balio. Lotsa galdu eta “denbora faltaren sindromea” gainditzea da gakoa. **Bestela esanda, bidali mezu elektronikoa bat laneko bilera bat proposatzeko, edo behintzat jar zaitez harremanetan LinkedIn bidez.** Hala, etorkizunean harremanetan jarri ahal izango zarete, komunikaziorako bide zuzenago bat ezartzeko egoera egokiago bat iristen denean.

Harreman profesionalen sarea da lan gehien ekarri ahal dizuna. *Networking*-a sare profesionalak hedatu eta elikatzea da, eta *-ing* hizkiekin bukatzen da; hau da, gerundioa da. Horrek pista bat ematen digu. Gauzak ez dira egun batetik bestera egiten; aldiz, jarraipen bat izan ohi da, eraikitzen joan behar den zerbeit.

Pista bat: Getxo MEETING aldizkako topaketa bat da, beti etortzen da berria den norbait eta giroa konfiantzazkoa da. Lagunarteko giroan pertsonak ezagutzeko aukera bat da, enpresa udalerrian bertan duen jendea. Hamabost egunean behin egiten den saioa denbora inbertsio txikia da, baina interesgarria izan daiteke. Etorri nahi duzu hurrengora?

Getxo MEETING: Zu bezalako profesionaleri zuzendutako saio tematikoak, praktikoak eta bitaminadunak.

Eman izena: [getxopro@getxo.eus](mailto:getxopro@getxo.eus) edo deitu 94 466 01 40 telefono-zenbakira.